| **KAPITULUAK / *CAPITULOS*** | **ZENBATEKOA *IMPORTE*** | ***% SOBRE PRESUPUESTO*** |
| | (Milaka Euroak) *(Miles de Euros)* | |
| Langile Gastuak<br>*1 - Gastos de Personal* | 449 | 90% |
| Funtzionamendu Gastuak<br>*2 - Gastos de funcionamiento* | 1.303 | 78% |
| Inbertsio Errealak<br>*6 - Inversiones reales* | 694 | 70% |

| **SARRERAK / *INGRESOS*** | | **AURREKONTU GAIN %a** |
|---|---|---|
| **KAPITULUAK / *CAPITULOS*** | **ZENBATEKOA** **_IMPORTE_** | ***% SOBRE PRESUPUESTO*** |
| | (Milaka Euroak) *(Miles de Euros)* | |
| Tasak, Salneurriak eta Zuzb. Publikoko B. Batzuk *3 - Tasas, precios públ y otros ingresos derecho Público* | 1 | 12% |
| Ondare-Sarrerak *5 - Ingresos Patrimoniales* | 11 | -- |

**PROGRAMA**
1411 JUSTIZI ADMINISTRAZIOA

**ARDURADUNA**
15 JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIOA
JUSTIZIA ADMINISTRAZIO ERABERRITZEKO ZUZENDARIA; BULEGO JUDIZIAL ETA FIZKALAREN ZUZENDARIA

***PROGRAMA***
*1411 ADMINISTRACIÓN DE JUSTICIA*

***RESPONSABLE***
*15 JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA*
*DIRECTORA PARA LA MODERNIZACIÓN DE LA ADMINISTRACIÓN DE JUSTICIA; DIRECTORA DE LA OFICINA JUDICIAL Y FISCAL*

HELBURUA

1. JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN GARAPENA ETA OPTIMIZAZIOA.
2. KARRERA JUDIZIAL ETA FISKALEKO KIDEEN ETA IDAZKARI JUDIZIALEN PRESTAKUNTZA..
3. JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAN EUSKARAREN EZARPENA BERMATZEA ETA EUSKARA JURIDIKOAREN BATASUNA SUSTATZEA.
4. BAKE JUSTIZIARI LAGUNTZEA GAI HORRETAN ESKUMENA DUTEN ENTITATEEKIN KOORDINATUZ.
5. JUSTIZIAREN EUSKAL AZTERGUNEA GARATZEA.
6. KARRERA JUDIZIALETARAKO OPOSIZIOAK PRESTATZEKO ZENTROA.
7. PLANGINTZA, OBRAK ETA MANTENTZEA.
8. JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO GIZA BALIABIDEAK OPTIMIZATZEA.
9. JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO LANGILEEN PRESTAKUNTZA.
10. JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO LANGILEEN LAN OSASUNA HOBETZEKO JARDUERAK.

*OBJETIVO*

*1. DESARROLLO Y OPTIMIZACIÓN DE LA ADMINISTRACIÓN DE JUSTICIA.*
*2. FORMACIÓN DE LOS MIEMBROS DE LA CARRERA JUDICIAL Y FISCAL Y DEL CUERPO DE SECRETARIOS JUDICIALES.*
*3. GARANTIZAR LA IMPLANTACIÓN DEL EUSKARA EN LA ADMINISTRACIÓN DE JUSTICA Y PROMOVER LA UNIFICACIÓN DEL LENGUAJE JURÍDÍCO EN DICHO ÁMBITO.*
*4. APOYO A LA JUSTICIA DE PAZ EN COORDINACIÓN CON LAS ENTIDADES COMPETENTES EN LA MATERIA.*
*5. DESARROLLO DEL OBSERVATORIO VASCO DE LA JUSTICIA.*
*6. FOMENTO ESTABILIDAD PROFESIONES JUDICIALES Y DE MÉDICOS FORENSES.*
*7. PLANIFICACIÓN, OBRAS Y MANTENIMIENTO.*
*8. OPTIMIZACIÓN DE LOS RECURSOS HUMANOS EXISTENTES EN LA ADMINISTRACIÓN DE JUSTICIA.*
*9. FORMACIÓN DEL PERSONAL AL SERVICIO DE LA ADMINISTRACIÓN DE JUSTICIA.*
*10. ACTUACIONES ORIENTADAS A LA MEJORA DE LA SALUD LABORAL DEL PERSONAL AL SERVICIO DE LA ADMINISTRACIÓN DE JUSTICIA.*

BETETZE MAILA

*1.JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN GARAPENA ETA OPTIMIZAZIOA.*

1.- Bulego judiziala antolatzeko eredu berria diseinatu eta sustatzea.

2009an zehar EAEko Bulego Judizial Berria jartzeko egutegia onartu da, eta Irun eta Getxoko barruti judizialetan proiektu pilotuak hedatzeko funtsezko agiri hauek diseinatu eta egin dira: Bulego Judizial Berriaren Organoei buruzko agiria, Bulego Judizial Berria Irunen eta Getxon jartzeko eginkizun nagusien plangintza, Irungo eta Getxoko zerbitzu komun prozesal orokorra eta betearaztekoa, Getxorako eta Irunerako ezarritako esperientzia-pilotuen deskribapena eta Bulego Judizial Berria ezartzeko komunikazio-plana, besteak beste.

EAEn Bulego Judizial Berria jartzeko ezarritako helburuak betetze aldera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Bulego Judizial eta Fiskalen

*GRADO DE CUMPLIMIENTO*

*1.DESARROLLO Y OPTIMIZACIÓN DE LA ADMINISTRACIÓN DE JUSTICIA.*

*1.- Diseñar e impulsar el nuevo modelo organizativo de la oficina judicial.*

*Durante 2009 se ha aprobado el calendario de implantación de la Nueva Oficina Judicial en Euskadi y se han diseñado y elaborado una serie de documentos clave para el despliegue de los proyectos piloto en los partidos judiciales de Irun y Getxo, siendo estos documentos los siguientes: el documento relativo a los Órganos de la NOJ, la planificación de las tareas principales para la implantación de la NOJ en Irun y Getxo, el diseño y la organización del servicio común procesal general y de ejecución de Irun y Getxo, la descripción de las experiencias piloto previstas para Getxo e Irun y el plan de comunicación de la implantación de la NOJ, entre otros.*

*Con la finalidad de acometer los objetivos previstos para la implantación de la NOJ en Euskadi, se han articulado los Órganos derivados del Plan Organizativo de las*

antolamendu-planetik datozen organoak antolatu dira eta azaroan Aldaketaren Kudeaketa Ekipoa eta Justiziako Sailburuordetzaren Batzorde Teknikoa eratu eta lehenengo bilerak egin ziren. Era berean, abenduan, organoetako kideei idatziz eskatu zitzaien beren ordezkariak izendatzeko, Bulego Judizial Berriko beste organo guztiak lehenbailehen sortu ahal izateko.

*Oficinas Judiciales y Fiscales de la Administración de Justicia en Euskadi y en noviembre se constituyeron y celebraron las primeras reuniones del Comité Técnico interno de la Viceconsejería de Justicia y del Equipo de Gestión del Cambio. Asimismo, en diciembre se solicitó por escrito a los miembros de los Órganos que designasen a sus representantes para poder así constituir lo antes posible los demás Órganos de la NOJ.*

Idazkari koordinatzaileekin eta jarduneko gobernuaren idazkariarekin bilerak egin dira eta idazkari judizialen lantaldeen bileretan parte hartu da Bulego Judizial Berriaren Jarduteko Protokoloak egiteko.

*Se han mantenido reuniones con las Secretarias Coordinadoras y la Secretaria de Gobierno en funciones y se ha participado en las reuniones de los grupos de trabajo de Secretarios y Secretarias Judiciales para la elaboración de los Protocolos de Actuación de la NOJ.*

Era berean, Fiskal Nagusiarekin eta EAEko Fiskalburuekin bilerak egin dira Bulego Judizial Berria ezartzeari dagokionez.

*Asimismo, se han celebrado reuniones con la Fiscal Superior y los Fiscales Jefe en Euskadi con relación a la implantación de la NOJ.*

Bulego Judizial Berria ezartzeak dakarren antolamendu-aldaketa ikusirik, arrakastaren erronkarik handiena antolamendu-eredu berria ezartzerakoan Justizia-Administrazioa osatzen duten pertsonen egokitzapena eta konpromisoa lortzea da. Horretarako, ezinbestekoa da erakundeko kolektibo guztiek uneoro gertatzen denaren berri izan dezatela; alegia, zergatik eta zertarako, eta proposatutako aldaketek nola eragingo dieten jakitea.

*Frente a la situación de cambio organizativo que supone la implantación de la NOJ, el mayor reto y clave del éxito reside en lograr la adaptación e implicación de las personas que componen la Administración de Justicia en la implantación del nuevo modelo de organización. Para ello es indispensable que todos los colectivos de la organización sepan en cada momento lo que está sucediendo, por qué y para qué, así como en qué modo se van a ver afectados por los cambios propuestos.*

Helburu hori lortzeko, komunikatzeko bide desberdinak erabili dira, helarazi nahi den mezuaren eta komunikazioaren xede-kolektiboaren egokitzapena aintzat hartuta. Horrela, bilera hauek egin dira:

- EAEko Justizia-Administrazioko langileei eta epailetzako kideei, fiskaltzakoei eta idazkari judizialei ezarriko denaren aurkezpena egitea. Aurkezpen hori era mailakatuan egin da barruti judizialen arabera, Bulego Judizial Berria ezartzeko egutegiari jarraiki.
- Antolamendu berriaren ezarpenak eragin dien profesionalei ezarritakoaren aurkezpena egitea (abokatutza eta prokuradoretza).

*Con este fin se han utilizado diferentes vías de comunicación que varían en función de su adecuación al mensaje que se quiere transmitir y el colectivo objeto de la comunicación. De este modo, se han realizado las siguientes reuniones:*

- *Presentación de la implantación al personal de la Administración de Justicia de la CAPV, así como a miembros de la judicatura, fiscalía y secretariado judicial. Dicha presentación se ha realizado de forma escalonada por Partido Judicial, de acuerdo al calendario de la implantación de la NOJ.*
- *Presentación de la implantación a profesionales que se ven afectado por la implantación de la nueva organización (abogacía y procuraduría)*

Artxibo judizialei dagokienez, barruti judizial desberdinetan artxibo judizialen antolamendu fisikoan lan egin da, espedienteen lekualdaketa eta kokapen berriko zerrenda informatikoak berregitea barne.

*Con relación a los archivos judiciales, se ha trabajado en la organización física de archivos judiciales en los distintos partidos judiciales, incluyendo el traslado de expedientes y la reelaboración de listados informáticos con las nuevas ubicaciones.*

Horrez gain, liburuen zerrenda bat egin da; liburu berriak kokatzen diren heinean zerrenda osatzeko asmoarekin.

*Se ha elaborado igualmente un listado de Libros que se pretende ir completando a medida que se vayan localizando nuevos Libros.*

Agiritegi historikoaren antolamendua lantzen ari da Euskadiko Agiritegi Historiko Nazionalera aldatzeko, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarekin elkarlanean.

*Se está trabajando en la organización del archivo histórico y su trasvase al Archivo Histórico de Euskadi, en colaboración con el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.*

Artxibo judizialak garbitzeari dagokionez, barruti judizialetan garbiketa sustatu da eta Garbitzeko Batzordearen osaerari buruzko ebazpen-proposamena egin da. Proposamen hori EHJANeko Gobernu-salari, Fiskaltza Nagusiari eta Gobernuko idazkaritzari bidali zaie, horri buruz jakin dezaten eta ekarpen posibleak egin ditzaten.

*En cuanto al expurgo de archivos judiciales se refiere, se ha fomentado el purgo en los distintos partidos judiciales y se ha elaborado una propuesta de Resolución relativa a la composición de la Junta de Expurgo que ha sido remitida a la Sala de Gobierno del TSJPV, a la Fiscalía Superior y a la Secretaría de Gobierno para su información y posibles aportaciones*

2- Erregistro zibilak hobetzeko programa egin da, euskalduntzea sustatuz eta bake-epaitegiekin lankidetzan, eta pixkanaka informatizatzen hasi dira, Justizia Ministerioarekin lankidetzan.

*2- Se ha realizado un programa de mejora para los registros civiles, fomentándose su euskaldunización, en colaboración con los Juzgados de paz, y se ha dado comienzo a la informatización gradual de los mismos en colaboración con el Ministerio de Justicia.*

3- Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundean hobekuntzak egin dira.
Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundean agindu-proposamena egin eta izapidetu da. Horren bidez, Auzitegiko medikuntzako euskal erakundearen auzitegiko laborategi-zerbitzuaren egitura- eta funtzionamendu-arauak onartu dira. Gainera, Euskal Osasun Zerbitzua-OSAKIDETZArekin lankidetza-akordioa sustatzen ari da, heriotzak gertatzen diren egoeretan jarduerak koordinatzeko, eta Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailarekin lankidetza sustatzen ari da biktima anitzeko katastrofe handietan auzitegiko medikuntzako euskal erakundearen jardueren inguruan.

*3- Implantar mejoras en el Instituto Vasco de Medicina Legal.*
*Con relación al Instituto Vasco de Medicina Legal, se ha elaborado y tramitado la propuesta de Orden por la que se aprueba el Reglamento de estructura y funcionamiento del servicio de laboratorio forense del Instituto Vasco de Medicina Legal y se están impulsando el Acuerdo de Colaboración con el Servicio Vasco de Salud-OSAKIDETZA para la coordinación de actuaciones en casos de defunción, así como la colaboración con el Departamento de Interior del Gobierno Vasco relativa a la actuación del Instituto Vasco de Medicina Legal en caso de grandes catástrofes con múltiples víctimas.*

2009an auzitegiko laborategiaren egitura eta prestakuntza behin betiko bateratu da. Hori, hainbat hornidura eskuratzeari esker eta barneratutako teknika berriak intentsiboki erabiltzeari esker izan da.

*El año 2.009 ha significado la consolidación definitiva de la estructura y la formación del Laboratorio Forense. Esto ha sido posible a través de la adquisición de distintas dotaciones y la utilización intensiva de nuevas técnicas incorporadas.*

Alde horretatik, laborategia kudeatzeko punta-puntako sistema informatiko bat eskuratu dela aipatu behar da.

*En este sentido cabe destacar la adquisición de un puntero sistema informático de gestión de laboratorio.*

Auzitegiko medikuen prestakuntza berezituaren prozesuarekin jarraitu da Euskal Osasun Zerbitzua-Osakidetzarekin sinatutako hitzarmenaren bidez. Auzitegiko sei mediku hautatu dira hiru lurralde historikoetako psikiatria eta anatomia patologikoko esparruetan parte hartzeko.

*Se ha continuado con el proceso de formación especializada de los médicos forenses mediante el convenio suscrito con el Servicio Vasco de Salud-Osakidetza, a través de la selección de seis médicos forenses para participar en las áreas de Psiquiatría y Anatomía Patológica en los tres Territorios Históricos.*

Jarduera horiek guztiak koordinatzeko, behar ziren lan-saioak egin dira auzitegiko medikuekin, sindikatuetako ordezkariekin eta Osakidetzako arduradunekin.

*A fin de coordinar todas estas acciones se han mantenido las correspondientes sesiones de trabajo con los médicos-forenses, representantes sindicales y se han continuado los contactos con los responsables del Servicio Vasco de Salud- Osakidetza.*

4- Agirien eta izapide judizialen normalizazioa sustatzea

Legezko testuen erreformen azterketarekin jarraitu dugu, eta lan-bilerak izan ditugu, agiri eta izapide judizialak normalizatzen jarraitzeko.

*4- Promover la normalización de documentos y trámites judiciales*

*Se ha continuado con el estudio de reformas de textos legales y además se han mantenido reuniones de trabajo para continuar con la normalización de documentos y trámites judiciales.*

5. 2008an hasitako Justizia-Administrazioaren Laugarren Informatizazio Plana garatzen jarraitu da. Plan hori Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren inguruko teknologia berrien esparruan oinarritzen zen.

*5. Se ha continuado con el desarrollo del Cuarto Plan de Informatización de la Administración de Justicia iniciado en el 2008, que estaba basado en el área de las nuevas tecnologías en el entorno de la Administración de Justicia en Euskadi.*

Benetako espediente judizial elektroniko bat sortzea da plan honen helburu nagusienetako bat eta, ildo horretan, lanean jarraitu da orain arte paperean edo kanpoko euskarrietan zeuden elementuak —esate baterako entzunaldietako grabazioak eta profesionalek epaitegietan aurkeztutako agiriak— JustiziaBAT aplikazioko espediente judizialean sartzeko. Horrez gain, hiriburuetako eta barruti judizial txikietako entzunaldi-aretoak eta erabilera anitzeko aretoak hornitzen jarraitu da, entzunaldiak eta bideokonferentziak grabatzeko behar den materialarekin. Era berean, profesionalek erabiltzen duten JustiziaSip aplikaziotik bitarteko telematikoz idazkiak sartzea sustatu da. Prokuradoreek adierazitako itxaropenak betetzeko garatutako aplikazioak hobetu dira. Benetako aplikazioari buruzko hainbat aurkezpen-bilera egin dira,

*La creación de un expediente electrónico judicial real es uno de los principales objetivos de este plan y, en esta línea, se han continuado los trabajos para la incorporación de elementos hasta ahora en papel o soportes externos en el expediente judicial de la aplicación JustiziaBAT, como son las grabaciones de las vistas, la documentación presentada por los profesionales en los juzgados, se ha seguido dotando a las salas de vistas y salas multiusos en las capitales y partidos judiciales menores del material necesario para la grabación de las vistas y videoconferencia. Asimismo, se ha potenciado la entrada de escritos por vía telemática desde la aplicación JustiziaSip que utilizan los profesionales, habiéndose mejorado las aplicaciones desarrolladas para cubrir las expectativas que manifestaron los procuradores. Se han*

prokuradoreekin, Gobernu-salarekin, Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin eta Justizia Ministerioarekin.

*llevado a cabo varias sesiones de presentación de la aplicación en real a procuradores, sala de gobierno, Consejo General del Poder Judicial y Ministerio de Justicia.*

Aldi berean, Justizia Administrazioaren kalkulu-zentroak osatzen dituzten hainbat elementuren software-monitorizazioa eskuratu da. 2008an sare judizialari buruz egindako azterlanean areagotuz doazen beharrak agertu ziren, komunikazioan, memorian eta prozesuan. Behar horiei egokitzeko komunikazio-elementuak eta zerbitzariak eskuratu dira. JustiziaBAT kudeaketa prozesaleko aplikazioa Bizkaian jartzeari dagokionez, erabilgarritasun handiko sistema edukitzeko lanak hasi dira, lurralde horretan justizia-administrazioak duen garrantziarekin bat. Segurtasun-auditoretza bat burutu da eta, horren ondorioz, sistemak eta aplikazioak seguruagoak izango dira. Lan hori 2010ean burutuko da.

*Paralelamente, se ha adquirido un software de monitorización de los distintos elementos que conforman los centros de cálculo de la Administración de Justicia. Se han adquirido servidores y elementos de comunicaciones para adecuarse a las necesidades crecientes de proceso, almacenamiento y comunicaciones que se reflejaron en el estudio de la red judicial elaborado en 2008. De cara a abordar la implantación de la aplicación de gestión procesal JustsiziaBAT en Bizkaia se han iniciado los trabajos encaminados a tener un sistema de alta disponibilidad como corresponde a la dimensión de la Administración de Justicia en este territorio. Se ha llevado a cabo una auditoría de seguridad cuyas conclusiones nos servirán para securizar los sistemas y aplicaciones, labor que se llevará a cabo en 2010.*

Bestalde, JustiziaBAT aplikazioan itzulpenerako tresna aurreratuak sartzen jarraitu dugu, zuzendaritzaren hizkuntza normalizatzeko planari zeharka ematen zaion laguntzaren ondorioz.

*Por otro lado, se ha continuado con la incorporación de herramientas de traducción avanzadas en la aplicación JustiziaBAT, como consecuencia del apoyo que se presta indirectamente al plan de normalización lingüística de la dirección*

1. Informatika Planaren Jarraipeneko Batzorde Mistoaren bilerak.

*1. Reuniones de la Comisión Mixta de Seguimiento del Plan Informático.*

2. Estatuko gainerako administrazioekin eta Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin bilerak, informatika-arloko koordinazio teknikorako.

*2. Reuniones para la coordinación técnica en materia de informática con el resto de Administraciones del Estado y del Consejo General del Poder Judicial*

Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiko Informatika Batzordearekin lankidetzan aritzen jarraitu dugu, eta hainbat gairi buruzko lan-taldeetan parte hartu, hala nola: segurtasun-auditoretza, etxeko indarkeriatik babesteko aginduen bidalketa, ebazpen judizialen transferentzia, Cendoj, bateragarritasun-testa, beste erkidegoetara exhortoak bidaltzea, agiri elektronikoen trukea, epai betearazleak, etab.

*Se ha continuado la colaboración con la Comisión de Informática del Consejo General del Poder Judicial, participando en varios Grupos de Trabajo como los relacionados con la auditoría de Seguridad, envío de órdenes de Protección de Violencia Doméstica, transferecencia de resoluciones judiciales al Cendoj, Test de Compatibilidad, envío de exhortos a otras comunidades, intercambio de documentos electrónicos y ejecutorias etc. Se ha colaborado también con la Comisión Nacional de estadística judicial.*

Erregistro Zibiletako aplikazio informatikoa (Inforeg) ezartzen amaitu da, eta bertako langileei prestakuntza eman zaie.

*Se ha completado la implantación de la aplicación informática de los Registros Civiles, Inforeg y se ha formado al personal de los mismos.*

Gune Neutro Judizialaren bidez zerbitzua zabaltzen jarraitu dugu.

*Se ha continuado con la ampliación de servicios a través del Punto Neutro Judicial.*

2009ko irailaren 30ean Justizia Ministerioak, Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiak eta Estatuko Fiskaltza Nagusiak egindako hitzarmenari atxikitzea, Justizia Administrazioaren esparruan elkarreragingarritasun- eta segurtasun-eskema judiziala ezartzeko (EJIS).

*Adhesión al convenio de colaboración firmado el 30 de septiembre de 2009 entre el Ministerio de Justicia, el Consejo General del Poder Judicial y la Fiscalía General del Estado para el establecimiento del Esquema Judicial de Interoperabilidad y Seguridad en el ámbito de la Administración de Justicia (EJIS).*

3. Informatika-aplikazioen euskarria ematen zaien erabiltzaileak.

*3. Usuarios a los que se proporciona soporte de las aplicaciones en materia informática.*

Justizia barruko erabiltzaile guztiei euskarri informatikoa eman zaie (2.000 funtzionario), epaile, idazkari judizial eta fiskalei (400), eta profesional

*Se ha prestado soporte a todos los usuarios internos de la justicia (2.000 funcionarios), Jueces, Secretarios Judiciales y Fiscales (400), y todos los*

guztiei (abokatu eta prokuradoreak), Justiziako Extranet-en bidez eskura baitituzte Profesionalentzako Informazio Zerbitzua eta Agiri bidezko Informazio Zerbitzua.

*profesionales (Abogados y Procuradores) dado que ya tienen a su disposición el Servicio de Información Documental y el Servicio de Información a Profesionales a través de la Extranet de Justicia.*

4. Bulego judizialak eta fiskaltzak informatizatzeko garatutako moduluak eta aplikazioak.

*4. Módulos y aplicaciones desarrolladas para la informatización de las Oficinas Judiciales y Fiscalías.*

Batetik, aurreko urteetan instalatutako moduluak hobetzen jarraitu dugu, erabiltzaileen beharrengatik zein Legearen aldaketengatik sortzen diren funtzionaltasun berriak erantsiz. Gainera, JustiziaBATeko modulu berriak ezartzen jarraitu dugu Gasteizko eta Donostiako organo judizialetan, eta, horrez gain, Araba eta Gipuzkoako barruti judizial txikietan garatutako moduluak ezarri dira.

*Se ha continuado, por un lado con la mejora de los módulos instalados en años anteriores añadiéndoles nuevas funcionalidades que surgen tanto por las necesidades de los usuarios como por cambios de la Ley. Además se ha continuado con la implantación de nuevos módulos de JustiziaBat tanto en los órganos judiciales de Vitoria como en Donostia y se han implantado asimismo los módulos desarrollados en los partidos judiciales menores de Araba y Gipuzkoa.*

Bestalde, eta Bulego Judizial Berria martxan hasi dela aintzat hartuta, JustiziaBATeko moduluak antolamendu berriaren arabera eguneratzeko lanak finkatuz doaz Bulego Judizial Berriaren definizio eta jarraipenerako bileretan aktiboki parte hartuz, Bulego Judizialeko Zuzendaritzarekin eta Fiskaltzarekin batera.

*Por otro lado, y dada la entrada en funcionamiento de la Nueva Oficina Judicial, se van afianzando los trabajos de actualización de los módulos de JustiziaBat a la nueva organización participando activamente en las reuniones de definición y seguimiento de la NOJ junto con la Dirección de la Oficina Judicial y Fiscal.*

6. Renting-prozesua gauzatzea

*6. Completar el proceso de renting*

2003. urteaz geroztik, Justizia Administrazioa Eraberritzeko Zuzendaritza Eusko Jaurlaritzaren eta EJIE Sozietate Publikoaren (Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea - Sociedad Informática del Gobierno Vasco) artean hitzartutako kontratu-programan (orain kudeaketa-gomendioa) ezarritako baldintzei atxikita dago.

*Desde el año 2003 la Dirección de Modernización de la Administración de Justicia está adherida a las condiciones establecidas en el Contrato-Programa, ahora encomienda de gestión, acordado entre el Gobierno Vasco y Sociedad Publica EJIE (Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea - Sociedad Informática del Gobierno Vasco).*

Laburbilduz, urte honetan Renting moduan kudeatutako elementuak honakoak izan dira:
- Berriak: 56 PC, 34 inprimagailu.
- Mantenimendua: 1.760 PC, 310 inprimagailu.
- Berrituak: 1.734 PC, 728 inprimagailu.

*Como resumen, indicar que durante este año los elementos gestionados en modalidad de Renting han sido:*
- *Nuevos: 56 PCs, 34 Impresoras*
- *En mantenimiento: 1.760 PCs, 310 Impresoras.*
- *Renovados: 1.734 PCs, 728 impresoras*

7. Jendeak eta profesionalek informazio judiziala eskuratu ahal izateko guneak ezartzea.

*7. Instalación de puntos de información judicial al público y profesionales.*

Herritarrek informazioa eskuratzeko eta izapide txikiak egiteko kioskoak jarri ditugu hiru hiriburuetako eraikin judizialetan.

*Se han adquirido kioscos como puntos de información y pequeños trámites para uso de los ciudadanos en tres de los edificios judiciales de las tres capitales.*

Bestalde, profesionalek zerbitzu berriak eskura ditzakete JustiziaNeten bidez, eta bitarteko telematikoz idazkien aurkezpen eta jakinarazpenak egiteko garapenak bukatu dira.

*Por otro lado, los profesionales pueden acceder a través de JustiziaNet a nuevos servicios y se han finalizado los desarrollos para incorporar la notificación y presentación de escritos telemática.*

8. Sinadura elektronikoa ezartzea

*8. Implantación de la Firma Electrónica*

Sinadura elektronikoa ezartzeko lanekin jarraitu dugu; horretarako, ezarritako JustiziaBATeko eredu berriek Bulego Judizialaren Zigilu elektronikoa eta onartutako Sinadura Elektronikoa daramatzate.

*Se ha continuado con los trabajos de implantación de la Firma Electrónica para ello los nuevos módulos implantados de JustiziaBat llevan incorporado el Sello de la Oficina Judicial de forma Electrónica y la Firma Electrónica reconocida.*

Abokatu eta prokuradoreen elkargo profesionalekin elkarlanean aritu gara profesional horiek sinadura

*Se ha colaborado con los Colegios Profesionales de Abogados y Procuradores para que estos profesionales*

aurreratu onartuaren ziurtagiriak izan ditzaten. Horien bidez, garatu diren aplikazioetara sartu ahal izango dira eta agiriak bitarteko telematikoz sinatu eta trukatu ahal izango dituzte bulego judizialekin.

Izenperekin sinadura- eta zigilatze-prozesuen denbora errendimendua aztertu da eta JustiziaBATek eta profesionalek horien erabilera optimizatzeko garapenak egitea eskatu zaie.

*dispongan certificados de firma avanzada reconocida que les den el acceso a los apicaciones que se han desarrollado y les permitan la firma y el intercambio telemático de documentos con las oficinas judiciales.*

*Se ha analizado con Izenpe el rendimiento de los procesos de firma y sellado de tiempo y se les ha requerido desarrollos encaminados a optimizar su uso por JustiziaBAT y los profesionales.*

9. Justiziarekiko Lankidetzarako Zerbitzuaren eta Gazte Justiziaren informatizazioa

Babes Aginduak eta Zuhurtziako Neurrien Autoak Babes Aginduen Koordinaziorako Zentrora bidaltzeko modua hobetzen jarraitu dugu.

*9. Informatización Servicios Cooperación con la Justicia y Justicia Juvenil*

*Se ha continuado con la mejora del envío de Órdenes de Protección y Autos de Medidas Cautelares al Centro de Coordinación de Ordenes de Protección.*

10- Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiko Dokumentazio Judizialeko Zentroarekiko lankidetza.

Aurreko urteetan izandako lankidetzarekin jarraitu dugu, bere garaian sinatutako hitzarmenaren babespean, Euskadiko Justizia Administrazioaren ebazpen judizialak aldizka CENDOJera,Justiziako dokumentazio-zentrora, bidaliz, bitarteko telematikoz.

*10- Colaboración con el Centro de Documentación Judicial del Consejo General del Poder Judicial.*

*Se ha continuado con la colaboración que se ha mantenido en años anteriores al amparo del convenio suscrito en su día, realizando periódicamente la transferencia telemática de las resoluciones judiciales de la Administración de Justicia en Euskadi hacia el CENDOJ, Centro de Documentación de la Justicia.*

11.- Justizia Administrazioaren web-orria garatzea eta Jakinarazpenen Sare Judiziala garatzen jarraitzea.

*11- Desarrollar la página Web de la Administración de Justicia y continuar el desarrollo de la red Judicial de Comunicaciones.*

1.- Interneterako sarbide korporatiboa.

Epaile, fiskal eta idazkari judizial guztiek interneterako sarbidea dute euren lanpostuetatik. Gainera, egoitza judizialetan dauden Justizia Administrazioko langile guztiek intranet judizialerako sarbidea dute eta interes juridikoko internet-helbideetara sar daitezke.

*1.- Acceso corporativo a Internet.*

*Todos los Jueces, Fiscales y Secretarios Judiciales, disponen de acceso a Internet desde sus puestos de trabajo. Además, todo el personal de la Administración de Justicia sito en las sedes judiciales dispone de acceso a la intranet judicial y a direcciones de internet de interés jurídico.*

2.- Justizia.net web-orriaren edukiak eta sarbideak prestatzeko bilerak

JustiziaNet justiziako erreferentziako atarietako bat da, etengabe aztertzen eta hobetzen ari delako. Hori dela eta, “bizia” izan behar du; horretarako, beharrezkoa da profesionalen, Justizia Administrazioko langileen eta teknikarien iritzia kontuan hartzea. Eta horregatik, hain zuzen ere, aldizkako bilerak izan ditugu, aurrerapenak eta hobekuntzak egiten jarraitzeko.

*2.- Reuniones elaboración contenidos y accesos Página Web, Justizia.net*

*JustiziaNet está considerado como uno de los portales referentes de la Justicia, ello es debido a que continuamente se halla en proceso de revisión y mejora, debe ser algo “vivo”, para ello es necesario contar con la opinión de los profesionales, de personal de la administración de Justicia y de personal técnico por lo que se ha continuado manteniendo reuniones periódicas que nos permitan avanzar y mejorar.*

3.- Extraneta eta intraneta garatzea.

Abokatu eta prokuradoreentzako diren JustiziaSIPeko (profesionalentzako informazioa) eta JustiziaSIDeko (agiri-bidezko informazio-zerbitzua) extraneta hobetzen jarraitu dugu etengabe. Zerbitzu horiek, gainera, Sinadura Digitala sartu dute.

Bake-epaitegietan lan egiten duten langileen eskura dagoen extraneta eduki gehiagoz hornitzeko prozesuarekin jarraitu dugu. Horrez gain, intranet bidezko sarreraren erabilera egonkortu da, Justizia Administrazioarekiko Zuzendaritzak eskaintzen dituen baliabideak erabiltzerakoan Erabiltzaileen

*3.- Desarrollo Extranet e Intranet.*

*Se ha mantenido una mejora continua de la Extranet de los Servicios de JustiziaSIP (Información a los Profesionales) y JustiziaSID (Servicio de Información Documental) para Abogados y Procuradores, además estos servicios incorporan la Firma Digital*

*Se ha continuado con el proceso de dotar de mayor contenido a la Extranet a la que tiene acceso el personal que desempeña su trabajo en los Juzgados de Paz. Además se ha estabilizado el uso del acceso a través de la Intraner al Servicio de Atención a Usuarios para la resolución de*

Arretarako Zerbitzuari sortzen zaizkion informatikako arazoak konpontzen laguntzeko.

*problemas informáticos que les pueda surgir al hacer uso de las distintas utilidades facilitadas por la Dirección de Relaciones con la Administración de Justicia.*

Justizia Administrazioko langileentzako JustiziaGELA e-learning plataformaren ezarpena eta garapena amaitu dira. Idazkari judizialen harrerarako ikastaroa eta Bulego Judizial Berrirako hasierako ikastaroa egin dira.

*Se ha finalizado el desarrollo e implantación de JustiziaGELA, plataforma de e-learning para el personal de la Administración de Justicia., habiéndose desarrollado el curso de acogida a secretarios judiciales y el curso de iniciación a la Nueva Oficina Judicial.*

Intranetari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazio osoaren lan-tresna bihurtu da, eta ematen dituen zerbitzuak etengabe handitzen ari dira, eduki berriak sartuz, zerbitzu berriak emanez eta lehendik emandako zerbitzuak hobetuz.

*En cuanto a la Intranet se ha convertido en la herramienta de trabajo para toda la Administración de Justicia del País Vasco y por ello está en continuo crecimiento incorporando contenidos y servicios nuevos y mejorando los servicios ya prestados.*

12- Zinpekoen Epaimahaiaren Lege Organikoa betearazteko, ekonomia gaietan beharrezko ekintzak gauzatzea.

*12- Instrumentalizar las actuaciones necesarias en materia económica para dar cumplimiento a la Ley Orgánica del Tribunal del Jurado.*

2009ko ekitaldian Euskal Autonomia Erkidegoan zinpeko epaimahaia erabilita 3 epaiketa egin dira, eta horiek sortutako mantenu- eta ostatu-premia guztiak asebete dira, baita legeak aurreikusitako kalte-ordain guztiak ordaindu ere.

*Durante el ejercicio 2009 se han celebrado en la Comunidad Autónoma del País Vasco 3 juicios con Jurado y se han organizado y atendido todas las necesidades de manutención y alojamiento derivados de los mismos, así como el pago de las indemnizaciones legalmente previstas.*

13- Perituen inguruko gaian, prozedura judizialek sortutako beharrei erantzutea.

*13- Dar respuesta a las necesidades generadas por los procedimientos judiciales en materia pericial.*

Justizia Administrazioak eskatutako peritu-frogei dagokienez, Sailburuordetzaren Peritazio Zerbitzuak 3.513 egin ditu, eta, kanpoko kontratuen bidez, beste 241. Orobat, doako laguntza juridikoko onuradunek eskaturik, Euskal Administrazioko langileek (Kabinete Psikosozialak, Auzitegiko Klinikak, Ertzaintzak, etab.) 21 egin dituzte.

*Para la atención a las pruebas periciales demandadas desde la Administración de Justicia se han realizado 3.513 por parte del Servicio de Peritaciones de la Viceconsejería y 241 a través de contrataciones externas. Asimismo, a instancias de beneficiarios de asistencia jurídica gratuita se han realizado 21 por personal de la Administración Vasca (Gabinete Psicosocial, Clínica Médico-Forense, Ertzaintza, etc.).*

2003ko apirilaren 28an Epaiketa Azkarren Legea indarrean jartzearen ondorioz, asko ugaritu dira perituen premiazko esku-hartzeak, eta behar horri zegokion erantzuna eman zaio, legea bera garatzeko oinarrietariko bat delako.

*Derivado de la entrada en vigor el 28 de abril de 2003 de la Ley de Juicios Rápidos, se requiere la realización de un importante número de actuaciones periciales urgentes, dándose la oportuna cobertura dado que se trata de una de las bases para el desarrollo de la propia ley.*

Peritazioen Zerbitzua finkatzeko, hiru bulegoak erabat informatizatuta daude, eta interneterako, bulego judizialerako eta peritazioen erregistroak egiteko programa informatikorako konexioa daukate. Urtean zehar sailburuordetzako peritazioen eremuko koordinatzailea aldatu da.

*Para afianzar el Servicio de Peritaciones las tres oficinas se encuentran plenamente informatizadas con conexión a internet, a la oficina judicial y programa informático de registro de peritaciones. Durante el año se ha producido el cambio de coordinadora del área de peritaciones de la Viceconsejería.*

Horrez gain, adituen txosten-motak zehazteari eta haiek aldez aurretik zehaztutako epeetan emateko beharrari dagokienez, epea betetzen ari dela esan daiteke.

*Asimismo, en relación con la Instrucción para la determinación de las clases de informes periciales y la obligación de su emisión en plazos predeterminados, puede afirmarse que se están cumpliendo en plazo.*

14.- Bestalde, eta Fiskaltzari dagokionez, 2009ko uztailean Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskal Nagusiari Eusko Jaurlaritzaren dekretu-proposamena bidali zitzaion. Horren bidez sortzen da Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltzaren arteko Koordinaziorako Batzorde Mistoa.

*14.- Por otro lado y con relación a la Fiscalía, en julio de 2009 se remitió a la Fiscal Superior del País Vasco una propuesta de Decreto del Gobierno Vasco por el que se crea la Comisión Mixta de Coordinación entre el Gobierno Vasco y la Fiscalía de la Comunidad Autónoma del País Vasco.*

*2. KARRERA JUDIZIAL ETA FISKALEKO ETA IDAZKARI JUDIZIALEKO KIDEGOKO KIDEEN PRESTAKUNTZA.*

1. Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin lankidetzan aritzea, karrera judizialeko eta bake-epaitegiko kideak prestatzen.

Prestakuntza-hitzarmena luzatuta, guztira 10 ikastaro egin dira, 180 epaile eta magistraturen partaidetzarekin. Irakatsitako gaiak funtsean, besteak beste, hauek izan dira: zigor kodearen erreforma, administrazioko kontratazioak, ebazpen judizialen bidez adostutako medikuen esku-hartzeak, genero indarkeria, profesionalen ondare-erantzukizuna, etab.

Hitzarmen horri esker garatutako bestelako jarduerak hauexek dira: ordezkatutako epaile eta ordezko magistratuentzako tutoretzak (6) eta argitalpenak.

Bake-epaileentzako prestakuntzako jardunaldi espezifikoak egin dira, guztira 86 parte-hartzailerekin.

Horrez gain, aipatutako prestakuntza-jardueretara landutako gaiekin zerikusirik duten bestelako taldeetako 130 pertsona baino gehiago joan dira: abokatuak, ekonomistak, prokuradoreak, etab.

Orobat, 2010. urterako prestakuntza-jarduerak diseinatu dira.

2- Ikerketa Judizialen Zentroarekin lankidetzan aritzea, karrera fiskaleko eta idazkari judizialen elkargoko kideak prestatzen.

Fiskalak eta idazkari judizialak prestatzeko Justizia Ministerioko Azterlan Juridikoen Zentroarekin 1998ko maiatzean sinatutako hitzarmenaren ondorioz, idazkari judizial eta fiskalentzako 4 ikastaro egin dira. Horietan 100 idazkari eta fiskal baino gehiagok parte hartu dute, eta gehienbat honako gaiok landu dira bertan: bulego judizialeko aldaketak, zigor-arloko epai-betearazlea, idazkari judizialaren erronkak eta abar.

2009an ere jarraitu da talde horiek guztiak euskalduntzen. Era berean, 2010ean garatu beharreko jarduerak egituratu dira.

3- Abokatuen Euskal Batzordearekin lankidetzan jardutea, EAEko abokatuak eskalduntzeko etengabeko prestakuntzan.

Bi erakundeok lankidetza-hitzarmen bat sinatu dugu 2007ko abenduan, bion artean prestakuntzako, euskalduntzeko eta erakundeen arteko lankidetzako jarduerak egiteko. Bestalde, Jarraipen Batzordeak bilera bat egin du.

Etengabeko prestakuntzako programari jarraiki, euskaraz zein gaztelaniaz guztira 15 ikastaro egin dira, eta oso harrera ona izan dute. Euskara juridikoa bultzatzeko jarduerak ere egin dira.

Era berean, 2010ean garatu beharreko jarduerak egituratu dira.

*2. FORMACIÓN DE LOS MIEMBROS DE LA CARRERA JUDICIAL Y FISCAL Y DEL CUERPO DE SECRETARIOS JUDICIALES.*

*1. Cooperar con el Consejo General del Poder Judicial en la formación de los miembros de la Carrera Judicial y de los Juzgados de Paz.*

*Producida la prórroga del Convenio de formación, se han celebrado cursos (10) con la asistencia de 180 Jueces y Magistrados participantes. Las materias impartidas han versado, entre otras, fundamentalmente sobre reformas codigo penal, contratación adma., intervenciones médicas acordadas por resolución judicial, violencia de género, responsabilidad civil profesional, etc…*

*Otras actividades que han tenido su desarrollo en dicho Convenio: tutorías para jueces sustitutos y magistrados suplentes (6) y publicaciones.*

*Se han desarrollado unas Jornadas específicas de formación para Jueces de Paz con un número de 86 asistentes.*

*A las actividades de formación precitadas también han asistido más de 130 personas de otros colectivos relacionados con los temas tratados: abogados, economistas, abogados, procuradores, etc…*

*Asimismo, se han diseñado las actividades de formación para el año 2010.*

*2- Colaborar con el Centro de Estudios Judiciales en la formación de los miembros de la Carrera Fiscal y del Cuerpo de Secretarios Judiciales*

*Fruto del convenio suscrito en mayo de 1998 con el Centro de Estudios Jurídicos del Ministerio de Justicia para la formación de Fiscales y Secretarios Judiciales, se han realizado 4 cursos para Secretarios Judiciales y Fiscales con una asistencia de más de 100 Secretarios y Fiscales, actividades que han versado fundamentalmente sobre cambios en la oficina judicial, ejecutoria penal, retos del secretario judicial, etc…*

*También durante 2009 se ha continuado con la formación en euskera de estos colectivos. Igualmente se han estructurado las actividades a desarrollar en el año 2010.*

*3- Colaborar con el Consejo Vasco de la Abogacía en la formación continua y euskaldunización de los Abogados Vascos.*

*Se ha procedido a la firma en diciembre-2007 de un convenio de colaboración para la realización de actividades conjuntas en materia de formación, euskaldunización y cooperación institucional.suscrito entre ambas instituciones. Asimismo se ha celebrado una reunión de la Comisión de Seguimiento.*

*Se han realizado, tanto en castellano como en euskera, un total de 15 cursos, con gran acogida, dentro del programa de formación continua así como actividades de potenciación del euskera jurídico.*

*Igualmente se han estructurado las actividades a desarrollar en el año 2010.*

*3. JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAN EUSKARAREN ERABILERA BERMATZEA ETA ESPARRU HORRETAN HIZKUNTZAREN BATASUNA SUSTATZEA.*

1. Euskararen erabilera normalizatzeari buruzko legea Justizia Administrazioan aplikatzea.

2009an, 2008an garatutako hizkuntza normalizatzeko neurriak aplikatzen jarraitu dugu.

2. Estamentu desberdinen arteko lankidetza sustatzea, agiri, galdeketa eta inprimaki elebidunak egiteko.

Hizkuntza juridikoan euskara normalizatzeko eta bateratzeko batzordeak agiri judizialetan euskara normalizatzeko lana egiten jarraitu du; 15 urte daramatza horretan lanean. 2009an, 773 agiri itzuli, zuzendu eta berrikusi dira; horietatik gehienak euskararen erabilera sustatzeko esperientziatan parte hartzen duten organo judizialentzat eta erregistro zibilentzat.

Bestalde, eta aurreko urteetan hasitako lanari jarraiki, normalizatutako agiri guztien ereduak JustiziaNET orrian sartzen jarraitu da.

3. Hizkuntza juridikoaren batasuna babestea.

Hizkuntza juridikoa batzeko eta estandarizatzeko lanari zabalkundea emate aldera, eta hura zaintze aldera, formulario judizialetako terminoen hustuketa, web-orrrian txertatua, zenbait euskarritan prestatu eta banatu da.

Legezko testuak itzultzeari dagokionez, eta Sailak eta Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuak legezko testu arruntenak euskarara itzultzeko sinatutako hitzarmenaren esparruan, 2009an Merkataritza Kodeari eta Kanbio-letra eta Txekeari buruzko Legearen itzulpena amaitu da.

Era berean, EHUrekin legezko testuak itzultzeko dagoen lankidetza-hitzarmenaren esparruan, 2009an Enpleguari buruzko Legea argitaratu da.

4. Itzultzaile-interprete lanetan aritzen diren langileak Justizia Administrazioan etengabe prestatzea.

Itzultzaile-interprete lanetan aritzen diren langileei ematen zaien prestakuntzari dagokionez, aurten oraindik ez da ikastarorik egin.

5. Euskara organo judizialetan erabiltzea sustatzeko jarduerak.

Joan den urtean barruti judizial bakoitzean ezarritako erabilera-planekin jarraitu da eta jarduera berriak burutu dira. Jarduera horien asmoa hizkuntza menperatzeko gaitasuna hobetzea da, motibazioa lantzea eta bulego judizialetan euskararen erabilera sustatzea.

a) Jakintza hobetzeko jarduerak

*3. GARANTIZAR LA IMPLANTACIÓN DEL EUSKARA EN LA ADMINISTRACIÓN DE JUSTICIA Y PROMOVER LA UNIFICACIÓN DEL LENGUAJE JURÍDICO EN DICHO ÁMBITO.*

*1. Aplicación de la Ley de Normalización del Uso del euskera en la Administración de Justicia.*

*En el 2009 se ha continuado en la aplicación de medidas de normalización lingüística desarrolladas en 2008.*

*2. Impulsar la cooperación entre los diferentes estamentos para la elaboración de documentos, cuestionarios e impresos bilingües.*

*Se ha continuado con la labor de normalización en euskera de documentos judiciales por parte de la Comisión de Normalización y Unificación de Euskera del Lenguaje Jurídico, la cual viene trabajando desde hace 15 años. En 2009 se han traducido, corregido y revisado 773 documentos, gran parte de ellos para los órganos judiciales participantes en las experiencias de fomento del uso del euskera y registros civiles.*

*Por otro lado, y continuando con la labor iniciada en años anteriores, se han seguido insertando en JustiziaNET todos los modelos de documentos normalizados.*

*3. Velar por la unificación del lenguaje jurídico.*

*Con el fin de dar difusión al trabajo de unificación y estandarización del lenguaje jurídico, y de velar por el mismo, se ha preparado en distintos soportes y distribuido el vaciado de términos de los formularios judiciales insertado en la página web.*

*En cuanto a la traducción de textos legales, y dentro del marco del Convenio suscrito entre el Departamento y el Instituto de Estudios Vascos de la Universidad de Deusto para la traducción al euskera de los textos legales más usuales, en el 2009 se ha terminado la traducción de la Ley Cambiaria y del Cheque y del Código de Comercio .*

*Asimismo, dentro del marco del convenio de colaboración con la UPV para la traducción de textos legales, en el 2009 se ha publicado la Ley de Empleo.*

*4. Formación continuada del personal que trabaja en labores de traductor-intérprete en el ámbito de la Administración de Justicia.*

*Dentro de la formación que se ofrece al personal que trabaja en labores de traductor-intérprete este año todavía no se ha realizado ningún curso de formación.*

*5. Actuaciones de fomento del uso del euskera en los órganos judiciales*

*Los planes de uso de cada partido judicial, implementados el año anterior, han tenido su continuidad con el desarrollo de nuevas acciones. Tales actuaciones están encaminadas a mejorar la capacitación lingüística, trabajar la motivación y fomentar el uso del euskera en las oficinas judiciales.*

*a) Actividades destinadas a mejorar el conocimiento*

Helburu hori lortzeko, 2009an, trebatzaile guztiek barruti judizial guztietan ahozko eta idatzizko prestakuntza-saioak egin dituzte eta saio horien edukiak, erritmoa eta maiztasuna bateratu dira. Gainera, barruti judizial bakoitzean proposatutako jarduera zehatzak ere bateratu dira.

*Con tal fin, durante el año 2009 se han extendido a todos los partidos judiciales sesiones formativas orales y escritas impartidas por los trebatzailes, y se han unificado los contenidos, ritmos y periodicidad de las mismas, además de las actuaciones concretas propuestas en cada partido judicial.*

b) Motibazioa areagotzeko jarduerak

*b) Acciones dirigidas a incrementar la motivación*

Hizkuntzari buruzko zenbait egun berezi zabaldu dira (Euskararen eguna, Korrika, Durangoko Azoka). Euskararen Txokoan epaitegietako eta horien eskualdeetako bilakaera linguistikoari buruzko datuak eta kultura-agenda argitaratu dira. Hizkuntzei buruzko lehiaketak egin dira eta artikuluak argitaratu dira tokiko eta eskualdeko hedabideetan hizkuntza erabiltzeko planei buruz. Langileek Zuzenberri aldizkaria sortu dute eta bi ale argitaratu dira.

*Han sido publicitadas fechas señaladas en torno al idioma (Día del Euskera, Korrika, Feria del Libro de Durango). Se han publicado en Euskararen Txokoa la agenda cultural y y los datos de evolución lingüística de los diversos Juzgados y sus comarcas. Se han desarrollado concursos en torno a los idiomas y publicado artículos sobre los Planes de Uso en medios de comunicación locales y comarcales. Los propios trabajadores han creado la revista Zuzenberri, de la que se han publicado dos números.*

c) Erabilera areagotzeko jarduerak

*c) Actuaciones encaminadas a aumentar el uso*

Euskara telefonoz lehen hizkuntza gisa erabiltzea sustatu da. Boluntarioei pegatina informatiboak banatu zaizkie eta taldean konpromisoak hartzera bultzatu. Idatzizko komunikazioari dagokionez, jurisdikzioan gehien erabiltzen diren zigiluak zuzendu eta itzuli dira eta epaitegietako errotulazio finkoak zuzendu dira. JustiziaBAT aplikazio informatikoa instalatuta duten langileei hobekuntzei buruzko banakako laguntza eskaini zaie, eta baita eskaintza berriei buruzko azalpenena ere. Agiri elebidunak ekoiztea sustatu da, intraneta balio lehenetsian euskaraz erabiltzeko kanpaina egin da (200 bat langilek dute), laguntza eman zaie JustiziaBat interfazea euskaraz eduki nahi dutenei.

